Zarzuelak, teatroak, komeriak (1964)

Herri honek teatruetarako aspalditxik dakar afiziñu ikaragarrixa; takian-potian eitxen zan teatro edo komeriaren bat. Neskak eta mutillak kuadrillan alkartu ta erdi olgetan erdi benetan zeozer prestatziari ekitzen otsien.

Berez entretenimentu haundirik ez bazan egoten, Garizuma aldian ez zeuan ez dantza ez zinerik; udabarrixan gero egunak luziauak zian ta Maiatzeko loren funtziño ostian, nor juan etxera? Teatruak eitxeko atxakixia baiño hobiagorik ezin topau! Txikixa izan herrixa ta herri erdik hartzen eban parte. Artista ta komiko ikusgarrixak euazen, eitxen ebena bizi ta bizi eraitxen ekixenak.

Ensaiuetan makiña droga ta barre eitxen eben; sakristian bedeinkatzeko ardaua harrapau ta danon artian gailletekin jan ebenian be izango zian kontuak. Entsaiuak ta haren osteko errepresentaziñuak Zirkuluan, Ostatuko Batzokixan zein Elizako lokaletan eiñ izan dia.

Gerra aurreko ta haren osteko urtietan komeria, teatrotxo ta zarzuela ugari eiñ zian Ermuan: "Manu Zoro", "Damua garaiz", "La cárcel sin puertas","Neskazaharra", "Anai biak", "Retorno a la costa", "La culpa fue de aquel maldito tango" edo "Mutilzaharra" dia gogoratuenak gaur egunian. Toribio Alzaga antzerkigile donostiarrak idatzitako liburuetatik moldatu zian bat baiño gehixao.

Zarzuelak be prestau zian ta herritar askok oindiñok akorduan dakate "La del manojo de rosas", "Katiuska" edo "El Caserío"ren errepresentaziñuen osteko esitua, txaluak ta zorixondu biharrak. Orkestia bihar bazan, kanpotik etortzen zan generalian ta erropa ta eszenarixo kontuak danon artian atontzen zian.

Gaiñeko erretratuan 1.963 urtian Zineman eiñ zan "El Caserío" zarzueliaren parte hartzaille banaka batzuk ikusi leikez, hirurogetamar-larogei bat pertsonak igo eben eta eszenarixora.

Ixa urte bete lehenao hasi bihar izan zan prestatzen; eszena aldaketa ugari, kantautako zati batzuk, teatruakin ta berba eiñ biharreko beste batzuk... Ikusmira itzela egon zan Ermuan eiñ zian hiru saiuetan ta inguruetako herrixetatik arran etorri zan jentia.

Hurrengo astietan furgoneta baten sartu tramankulo danak ta komeriantien modura herririk herri ibilli zian: Mutriku, Bergara, Eibar ta Elgoibarrera juan bihar izan zian, bertako jendiak deitxuta. Dan-danetan txalo zaparrada ugari entzunda etorri zian bueltan, ez baiña Ermuan beste. Orduko denporetan be esaten eben Ermuko publikua berua ta eskerronekua zala, txaluak bildurrik barik joten ekixala; zorixonez halakotxia da oindiñok.

Estibalitz Gonzalez